

IZENDAPENA	AHOAREN ETA HORTZEN HIGIENEN GOI-MAILAKO TEKNIKARIA		
KURTSO KOPURUA	2	IRAUPENA	2000 ORDU
LANBIDE ARLOA	OSASUNGINTZA	MAILA	GOI MAILA
IKASTURTEA	20-21	BERRIKUSTE DATA	2020 IRAILA

ZIKLOAREN DESKRIBAPENA
<p>-Hortz-kabinete bateko pazienteen fitxategiak kudeatzeko, haiek behar dituzten arreta-premiei erantzuteko.</p> <p>- Arriskuak prebenitzeko eta baliabideak optimizatzeko, eta, horretarako, ahoaren eta hortzen osasuneko unitateko jarduerak programatzen laguntzeko.</p> <p>-Material suntsikorren, ordezeko piezen, tresneriaren eta lanabesen erosketa, berrezarpena eta biltegiatzea kudeatzeko.</p> <p>-Kabineteko instalazioen eta tresneriaren eraginkortasuna ziurtatzeko, ezarritako prozedurak eta kalitate-protokoloak aplikatuta.</p> <p>-Aho-barrunbeko osasunari eta gaixotasunari buruzko datuak azterketa eta miaketa bidez lortzeko eta erregistratzeko.</p> <p>-Teknika prebentiboak eta laguntzakoak ezarritako protokoloen arabera aplikatzeko.</p> <p>-Hortzen erradiografiak lortzen eta teknika erradiologikoak aplikatzen laguntzeko, erradiobabeseko arauak eta irizpideak betez.</p> <p>-Biztanle-taldean jarraipen epidemiologikoa egiteko programa bat aplikatzeko beharrezkoak diren jarduketak planifikatzeko eta garatzeko.</p> <p>-Pertsonen eta erkidegoaren ahoaren eta hortzen osasuna sustatzeko osasun-hezkuntzako jarduerak diseinatzeko eta inplementatzeko.</p> <p>-Pazienteei/erabiltzaileei laguntza psikologikoa emateko, ahoaren eta hortzen tratamenduak errazago egin daitezten.</p> <p>-Ahoaren eta hortzen osasuneko taldearen barruan tratamendu odontologikoetan sostengua edo euskarria emateko teknikak aplikatzeko, zerbitzuak errazago egin daitezten.</p>

1. SARRERA BALDINTZAK

- **Goi-mailako** zikloetan:

- a) Batxilergo Esperimentaleko edozein modalitateren bigarren ikasturtea gainditurik izatea.
- b) Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea edo Unibertsitate Aurreko Ikasturtea gainditurik izatea.
- c) Goi-teknikariaren titulua, teknikari espezialistaren titulua edo akademikoki parekoa den beste tituluren bat izatea.
- d) Unibertsitate-titulua edo pareko bat izatea.

2. PROMOZIONATZEKO BALDINTZAK

AGINDUA, 2010eko otsailaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, lanbide-heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duena. (LOE) 11. artikulua

- 1- Ezin izango dute heziketa-zikloko lehen kurtsoetik bigarrenera igaro lehen kurtsoko amaierako bigarren ebaluazioaren ondoren, 3 lanbide-modulu edo gehiago gainditu gabe dituztenak, edo lanbide- modulu gutxiago, baldin eta gainditu gabeko moduluaren edo moduluen iraupenaren batura 300 orduetik gorakoa bada.
- 2- Bigarren kurtsoan, ikastetxean egindako 1. Kurtsoko zein 2. Kurtsoko modulu guztiak gainditu dituztenak igaro ahal izango dira lantokiko prestakuntzako modulura edo, hala badagokio, proiektuko modulura. Ondorio horretarako ez da aintzat hartuko tituluen curriculum ezartzen duen Dekretuaren aurreratzea aurreikusi den lantokiko prestakuntzako moduluaren zatia.

3. TITULAZIOA

- Heziketa zikloa osatzen duten modulu guztiak gaindituak izateak, teknikari titulua eskatzeko eskubidea ematen dio ikasleari.
- 2008ko apirilaren 16az geroztik **goi mailako teknikariaren** titulua lortu eta titulazio horiei dagozkien ikasketen curriculum osoaren % 50 baino gehiago euskaraz egin dutenek ez dituzte aurkeztu beharko Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B2 mailaren baliokide diren euskarako hizkuntza-tituluak eta –ziurtagiriak. (47/2012 DEKRETUA, apirilaren 3koa)

4. EBALUAZIOA

Lanbide heziketako ebaluazioen izaera **etengabea** izango denez gero, heziketa zikloetako lanbide-moduluetarako programatutako jardueretara eta eskoletara erregularitasunez bertaratu beharko da. Ikastetxeek beren antolamendu eta funtzionamenduko araudian zehaztuko dute zein kausengatik jo daiteke justifikatuzat eskoletara eta jardueretara ez bertaratzea, baita bertaratzeko erregularerako baldintzak ere- **etengabeko ebaluaziorako eskubideari eusteko ez da inola ere %80 tik beherakoa izango-**.

4.1. EBALUAZIO DATAK

LEHENENGO MAILA

1. EBALUAZIOA	2. EBALUAZIOA	AZKENEKO 1.	AZKENEKO 2.
Azaroak 13 2020	Otsailak 12 2021	Ekainak 1 2021	Ekainak 21 2021

5. LANBIDE PROFILA

- Hortz- higienista.
- Aho eta hortzen higienista.
- Aho eta hortzen higieneko teknikari espezialista.
- Osasun- hezitzailea

6. FORMAKUNTZA IBILBIDEA

1. MAILA	2. MAILA
Harrera eta logistika hortz- klinikan (132 ordu)	Aho osasunerako hezkuntza (140 ordu)
Aho barrunbearen azterketa (165 ordu)	Kontserbatzailea, periodontzia, kirurgia eta inplanteak (160 ordu)
Aho barrunbearen miaketa (132 ordu)	Protesiak eta ortodontziak (140 ordu)
Epidemiologia aho- osasunean (132 ordu)	Lehen laguntzak (60 ordu)
Fisiopatologia orokorra (165 ordu)	Ahoaren eta hortzen higieneko proiektua (50 ordu)
Laneko prestakuntza eta orientabidea (99 ordu)	Ingles teknikoa (40 ordu)
Aho hortzetako interbentzioa (165 ordu)	Enpresa eta ekimen sortzailea (60 ordu)
	Lantokiko prestakuntza (360 ordu)

7. GEHIENGO DEIALDIAK

Bertaratze bidezko erregimenean, lanbide modulu bakoitza lau deialditan ebaluatu ahal izango da, lantokiko prestakuntza izan ezik. Modulu hori bi deialditan ebaluatu ahal izango da.

Salbuespen gisa, oinarritzko arauan ezartzen diren lau deialdiak agortu dituzten pertsonak aparteko deialdi bat ere izan dezakete, baldin eta honako kausetakoren bat gertatu bada: Amatasuna, menpeko pertsonen zaintza, gaixotasuna, minusbalioetasuna, edo ikasketak ohi bezala garatzea baldintzatu edo eragotzi duten beste kausa batzuk. Horretarako, dagokien eskaera aurkeztu beharko dute matrikulatuta dauden ikastetxearen idazkaritzan.

8. MATRIKULAREN EZEZTATZEA ETA DEIALDIARI UKO EGITEA

Irakaskuntza presentzialaren kasuan **matrikula bat ezeztatzen** bada, eskatzailea matrikulatuta dagoen lanbide-modulu guztietan bajaran emango da.

Matrikulatuta egonez gero, ikastetxearen zuzendariari zuzenduko zaio matrikula ezeztatzeko eskaera. Irakaskuntza presentzialean, abenduaren 28a baino lehen aurkeztu beharko da eskabidea.

Irakaskuntza presentzialean, honako arrazoi hauetako bat egon dela erakusten duten egiaztagiriak aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera, eta aldeko txostena egingo da, betiere arrazoi hauetako bat egonda:

- Ikaslearen gaixotasun luzea.
- Ikasketarako dedikazio normala eragotziko duen lanpostu batean hastea.
- Ikasketarako dedikazio normala eragotziko duten obligazio pertsonalak edo arloarrak izatea.

- Eskabidea helarazi den ikastetxearen zuzendariak aintzat hartutako ezohiko beste zirkunstantzia batzuk.

Irakaskuntza presentzialaren kasuan, lanbide-modulu bakoitzerako aurreikusitako deialdiak ez agortzearen, ikasleek bi aldiz **uko egin** ahal izango diote heziketa-zikloetako lanbide-moduluetako bakoitzaren ebaluazioari eta kualifikazioari.

Eskaerak ikastetxearen zuzendariari zuzendu beharko zaizkio dokumentu bidezko egiaztapenarekin batera. Uko egiten den ebaluazioa baino hilabete lehenago, gutxienez, helarazi beharko zaio eskaera ikastetxearen zuzendariari.

Matrikulatuta dagoen ikastetxearen zuzendariak ebatzi beharko du eskaera. Ebazpena aldeko izango da lehentxeago aditzera emandako inguruabarretako bat gertatzen bada.

Baldintzak objektiboki ez betetzeagatik matrikula ukatzea edo ofizioz ezeztatzea.

Segurtasun edo osasun egoerekin lotutako baldintza psikofisiko zehatz batzuk eskatzen dituen profil profesionala duten lanbide-heziketako ikasketetarako, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak beharrezkoak diren frogagiriak aurkezteko edo proba jakin batzuk egiteko eskatu ahal izango du, titulu bakoitza arautzen duen arauan hala jasota badago.

Kasu horietan, Hezkuntza Saileko laguntza-zerbitzukoekin eta, behar izanez gero, saileko prebentzio-zerbitzuarekin erkatu eta gero, eta, betiere, Hezkuntza Ikuskaritzak txostena eman ostean, atzera bota ahal izango da ikaslearen matrikula, baldin eta ondorioztatzen bada ez dituela betetzen eskatzen zaizkion baldintza horiek.